

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 324

*3/2020 DEKRETUA, urtarrilaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena (behin-behineko langileak).*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 14. artikulua arabera, lanpostuen zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak barne hartu beharko dituzte, eta funtzionarioentzat, lan-kontratadun langile finkoentzat eta behin-behineko langileentzat gordeak diren bereizi. Manu hori betetzeko argitaratu zen martxoaren 20ko 44/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari sailletako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onesteko dekretua aldatzen duena, eta dekretu horren bidez onartu ziren behin-behineko langileentzako lanpostuen zerrendak. Era berean, dekretu horrek apirilaren 19ko 92/2005 Dekretua ordeztu zuen, zeina deusez deklaratu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2006ko urtarrilaren 12ko epaiaren bidez. Ordutik hainbat aldiz aldatu da aipatu dekretua, eta, egun, indarrean da apirilaren 9ko 189/2013 Dekretuaren bidez onartutako behin-behineko langileen lanpostuen zerrenda.

Lanpostuen zerrendak dira administrazioari barne-egiturak antolatzeko baliabideak. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko ebazpena jaso duten aldaketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldiari aldiari, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzura dauden behin-behineko langileen erregimen juridikoaren arautze orokor eta estrukturalari buruzko proposamena onartzeko Gobernu Kontseiluaren 2002ko uztailaren 30eko Erabakian aurreikusitakoa betetzeko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikuluari dagokionez.

Lanpostuen zerrenda honek zehazten ditu funtsezko ezaugarriak, horiek betetzeko eskatutako eskakizunak eta postuen ordainsari-erregimenari dagokion beharrezko zehaztapenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen Administrazio Orokorreko lanpostuen zerrendak arautzeko apirilaren 12ko 78/2005 Dekretuaren 5.4 artikulua arabera, eta urtarrilaren 16ko 6/2007 Dekretuak emandako idazkeran, zeinak, batetik, erantzuten baitio 2005eko azaroaren 18ko Epaiaren epaitzan aurreikusitakoari eta, bestetik, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 15. artikuluko eta Gobernu Kontseiluaren 2002ko uztailaren 30eko Erabakiko aurreikuspenak bateratzen baititu.

Horren ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2020ko urtarrilaren 21ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak onartzea. Zerrenda horiek dekretu honen eranskinean agertzen dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, dekretua argitaratu

2020ko urtarrilaren 24a, ostirala

eta hurrengo egunetik hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 21ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

2020ko urtarrilaren 24a, ostirala

## ERANSKINA, URTARRILAREN 21EKO 3/2020 DEKRETUARENA.

Aldatu:

Kodea	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Saila	HE	Ordainsaria	Lan. mot.	Saikapena	Dedikazio erregimena
5003	1	Lehendakariaren bigarren idazkarria	Lehendakaritza	2	20	N	EP	2
5003	2	Lehendakariaren bigarren idazkarria	Lehendakaritza	2	20	N	EP	2
5003	3	Lehendakariaren bigarren idazkarria	Lehendakaritza	2	20	N	EP	2

Gakoak

Lanpostu mota: N Normalizatua

Saikapenak  
EP Egiturako lanpostuaDedikazio Erregimena  
2: dedikazio BEREZIA % 20